

AITOR GANBARARA IGO DA



Aitor baserri batean bizi da. Gaur bere gurasoak hirira joan dira eta Aitor etxean bakarrik geratu da. Aspertuta dago. Horregatik igo da ganbarara. Traste zaharrekin jolasu nahi du. Ganbara nahiko ilun dago eta ez dago lanpararik. Aitor beldurtuta dago baina ez du atzera egin nahi. Armairu zaharra aurkitu du eta armairuko atea ireki du.

– Hara! Soineko zuri polit bat dago hemen! Ezkontza-soineko da! Amamarena izango da akaso.

Aitorrek soinekoa jantzi du. Oso luzea da eta arrastaka darama. Soinuak piskat beldurtu du. Orduan buelta eman du eta zerbait zuria ikusi du.

– Ai ama! Mamua, mamua!– oihu egin du Aitorrek. Eta geldi-geldi gelditu da. Guztiz izututa. Ezin da mugitu. Mamua ere geldi-geldi dago. Aitorrek pauso bat atzera eman du eta mamua ere bai. Poliki-poliki atzera joan da Aitor. Baita mamua ere. Orduan Aitor konturatu da ez dagoela mamurik, bere irudia dela ispiluan ikusi duena.

– Jajaja!– barre egin du Aitorrek. – Susto galanta hartu dut!
Gero mamuetan jolasten geratu da bere gurasoak etorri arte.

ganbara: desvan **Hara!:** ¡Aiba! **ezkontza:**boda **darama:** lleva **zerbait:**ikusi **mamua:** fantasma **izututa:** aterrorizado **mugitu:** mover **konturatu:** darse cuenta **irudia:** imagen

GALDERAK

1. Non bizi da Aitor?
2. Gaur norekin dago Aitor etxean?
3. Nora igo da jolastera?
4. Zer aurkitu du Aitorrek ganbaran?
5. Zergatik beldurtu da Aitor?
6. Nola erreakzionatu du?

Norekin bizi da?

